# OSATEKen euskararen erabilera normalizatzeko lehenengo plana (2018-2022)

# 2021eko Kudeaketa Plana

| Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA. | EKINTZAK |
|---|---|
| **1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA**. Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatu.** | |
| **1.1.- Errotulazioa.** Helburua: ***harrera publikoa egiten den guneetako errotulazioan euskararen presentzia bermatu.*** | |
| **1.1.1.- Errotulazioa.** | 4 |
| **1.1.2.- Herritarrei adierazi zein profesional den euskalduna, harekin euskaraz egin ahal izateko.** | 1 |
| **1.2.- Paper-gaiak, argitalpenak, iragarki ofizialak eta ekitaldi publikoak.** Helburua: ***aipaturiko esparruetan euskararen presentzia eta erabilera bermatu.*** | 9 |
| **1.3.- Ingurune digitala.** Helburua: ***OSATEKen webguneko edukiak eta posta elektronikoen mezuen sinadura euskaraz egon daitezen bermatu.*** | 8 |
| **2.- HARREMANAK HERRITARREKIN.** Helburua: **herritarrentzako zerbitzuetan euskararen erabilera handitu, euskaraz artatua izatea nahi duen herritarrak euskaraz jaso dezan zerbitzua.** | |
| **2.1.- Idatzizko komunikazioak herritarrekin.** Helburua: ***herritarrari eman beharreko testu idatziak euskaraz ere egon daitezen bermatu, herritarrak berak nahi duen hizkuntza-bertsioa erabil dezan. Idatzizko harremanak (Erresonantzia magnetikoa egin aurretiko segurtasun-galdetegia; Zain barneko kontrastea jarri ahal izateko baimena; Erreklamazio-orria; Gogobetetze-inkesta, Bertaratze-ziurtagiria, gutunak eta bestelakoak).*** | 4 |
| **2.2.- Ahozko komunikazioak herritarrekin.** Helburua: ***euskaraz komunikatu eta euskaraz artatua izan nahi duela adierazi duen herritarrarekin OSATEKeko langileek izan beharreko ahozko harreman guztiak euskaraz izango direla bermatu.*** | |
| **2.2.1.- Telefono bidezko ahozko komunikazioak.** | 8 |
| **2.2.2.- Ingurune fisiko asistentzialeko aurrez aurreko komunikazioak.** | 8 |

| Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA. | EKINTZAK |
|---|---|
| **3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.** Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.** | |
| **3.1.- Laneko hizkuntza-paisaia.** Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.*** | |
| **3.1.1.- Bulegoetako errotulazioa (armairuak, apalak, karpetak, artxibadoreak eta abarrak), zentroetako errotulazio orokorra (protokoloak, segurtasuna, ingurumena, kalitatea, tresnen, ekipoen eta instalazioen jarraibideak eta abarrak), eta errotulu eta seinale aldakorrak.** | 7 |
| **3.1.2.- Bulegoetako makinetako eta EM makinetako interfazeak eta soinu bidezko mezuak.** | 5 |
| **3.2.- Laneko idatzizko harremanak.** Helburua: ***barruko idatzizko harremanetan euskararen erabilera areagotu.*** | |
| **3.2.1.- OSATEKen informazio- edo eta komunikazio-tresnak.** | 2 |
| **3.2.2.- OSATEKen agiri ofizialak.** | 3 |
| **3.2.3.- Agirien sarrera- eta irteera-erregistroa.** | 4 |
| **3.2.4.- OSATEKeko lan-bilerekin zerikusia duten agiriak.** | 3 |
| **3.2.5.- OSATEKeko barruko harremanetako idatzizko komunikazioak.** | 5 |
| **3.2.6.- Langileek bete beharreko inprimaki eta dokumentuak.** | 4 |
| **3.3.- Barruko ahozko harremanak (komunikazio horizontala eta bertikala).** Helburua: ***ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotu.*** | |
| **3.3.1.- OSATEK barruko lan-bileretako ahozko komunikazioa (aurrez aurre egindako bilerak zein edo bideokonferentzia bidez egindakoak).** | 4 |
| **3.3.2.- OSATEK barruko telefono bidezko harremanak.** | 3 |
| **3.3.3.- OSATEK barruko aurrez aurreko harremanak.** | 2 |
| **3.4.- Baliabide informatikoak.** Helburua: ***euskarri informatikoen kasuan, euskarazko bertsioa egongo dela bermatu eta, aldi berean, OSATEKeko langileen artean bertsio horren erabilera sustatu.*** | |
| **3.4.1.- Aplikazio eta programa orokorrei (Outlook, Windows, Office...) eta berariazkoei dagozkien lanabesen euskarazko bertsioak instalatu.** | 6 |
| **3.4.2.- Aplikazio eta programa orokorrei (Outlook, Windows, Office...) eta berariazkoei dagozkien lanabesen euskarazko bertsioak erabili.** | 4 |

| Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA. | EKINTZAK |
|---|---|
| **4.- OSATEKeko LANGILEEN KUDEAKETA.** Helburua: **OSATEKeko langileen kudeaketan eta prestakuntzan euskararen erabilera handitu.** | |
| **4.1.- Langileen kudeaketa.** Helburua: ***OSATEKeko giza baliabideen kudeaketan euskararen erabilera idatzia eta ahozkoa areagotu.*** | 2 |
| **4.2.- Langileen prestakuntza.** Helburua: ***euskarazko prestakuntzaren eskaintza areagotu eta eskakizuna sustatu.*** | |
| **4.2.1.- Laneko prestakuntza: OSATEKek ematen duen prestakuntza; kanpoan kontratatutako prestakuntza.** | 5 |
| **4.2.2.- Prestakuntza-ikastaroen kudeaketa.** | 4 |
| **5.- KANPOKO HARREMANAK.** Helburua: **kanpoko erakundeekiko harremanetan euskararen erabilera areagotu.** | |
| **5.1.- Administrazioak.** Helburua: ***OSATEKeko giza baliabideen kudeaketan euskararen erabilera idatzia eta ahozkoa areagotu.*** | |
| **5.1.1.- Administrazioekiko idatzizko harremanak.** | 4 |
| **5.1.2.- Administrazioekiko ahozko harremanak.** | 4 |
| **5.2.- Erakunde pribatuak.** Helburua: ***finantza-erakundeekiko, eta ondasunen, produktuen eta zerbitzuen hornitzaile diren enpresekiko harremanetan euskararen erabilera areagotu.*** | |
| **5.2.1.- Erakunde pribatuekiko idatzizko harremanak.** | 4 |
| **5.2.2.- Erakunde pribatuekiko ahozko harremanak.** | 4 |
| **5.3.- Bestelako harremanak: Enpresa Batzordea.** Helburua: ***OSATEKeko Enpresa Batzordearekiko harremanetan euskararen erabilera areagotu.*** | |
| **5.3.1.- Enpresa Batzordearekiko idatzizko harremanak.** | 3 |
| **5.3.2.- Enpresa Batzordearekiko ahozko harremanak.** | 2 |
| **5.4.- Bestelako harremanak: Osasun Saila, Osakidetza, HPS, EHU, UEU, Bikain, Bizkaia Plaza eraikineko sozietateak, eta abar.** Helburua: ***Lankidetza sustatu eta informazioa trukatu euskararen normalizazio-prozesuari buruz.*** | 5 |
| **6.- KUDEAKETA-SISTEMA.** Helburua: **euskararen kudeaketa aurreratua bermatu.** | |
| **6.1.- Estrategia.** Helburua: ***hizkuntza-kudeaketa OSATEKen kudeaketa-sistema orokorrean txertatu.*** | |
| **6.1.1.- 2021eko Kudeaketa Plana.** | 4 |
| **6.1.2.- Euskararen kudeaketak OSATEKeko kudeaketa orokorrean duen txertatze-maila.** | 7 |
| **6.1.3.- Euskarazko sorkuntza.** | 3 |
| **6.1.4.- Dokumentazioaren estandarizazioa.** | 4 |
| **6.2.- Herritarrak eta zerbitzua.** Helburua: ***hizkuntza-kudeaketa herritarrekiko harremanen kudeaketan eta zerbitzuen garapenaren kudeaketan txertatu.*** | |
| **6.2.1.- Herritarrekiko harremanen kudeaketaren baitan hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideen betetze-maila.** | 8 |
| **6.2.2.- Zerbitzuen kudeaketan hizkuntza ofizialen erabilera-irizpideen betetze-maila.** | 5 |
| **6.3.- Langileak.** Helburua: ***hizkuntza-kudeaketa langileen kudeaketan txertatu.*** | |
| **6.3.1.- Hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntza.** | 7 |
| **6.3.2.- Langileen hizkuntza-gaitasunen erregistroa.** | 4 |
| **6.3.3.- Langileen kontratazioa eta barruko promozioa.** | 6 |
| **6.3.4.- OSATEKeko Administrazio Kontseiluaren eta zuzendari-gerentearen lidergoa eta parte hartzea.** | 2 |
| **6.3.5.- Euskararen Planari buruzko balorazioa, OSATEKeko langileena eta zuzendari-gerentearena.** | 2 |
| **6.3.6.- OSATEKeko langileen eta zuzendari-gerentearen parte hartze aktiboa Euskara Planaren ekintzetan.** | 3 |
| | **186** |

## 2021ko Kudeaketa Plana: ekintza garrantzitsuenen kronograma

| URTARRILA | OTSAILA | MARTXOA | APIRILA | MAIATZA | EKAINA |
|---|---|---|---|---|---|
| - 2020 EPP: balorazioa<br>- 2021 EPP: taldeak martxan jarri eta sakontze-ekintzak<br>- EBS kanpaina: logoak<br>- BIKAIN: neurriak Zumarragan<br>- Euskaraldia: balorazioa<br>- *12 hilabete, 12 erronka*<br>- Dokumentuak/HP: estandarizatu<br>- Kanpo aliatuak: bilerak | - *Egunean behin*<br>- HOEI: saioak antolatu eta planifikatu<br>- Dokumentuak/HP: karpeta sortu Intraneten<br>- Dokumentu estrategikoak Interneten, Intraneten eta HIZKETAn: orain arteko KPak eta EPPak<br>- BIKAIN: Zumarragakoak egin<br>- Webgunea euskaraz | - BIKAIN: Eibar aztertu<br>- EPP: sakontze-ekintzen balorazioa<br>- EBS kanpaina: 2. fasea aztertu eta diseinatu<br>- BP: Korrika + tribiala<br>- Euskara Batzordea<br>- Harrera-gida zuzendu eta eguneratu | - EPP: Arabako liberatuak<br>- Lanketa berezia GBekin<br>- Kike Araban<br>- 2. galdetegia prestatu<br>- 2. *Aldahitz* dinamika BPn<br>- Prestakuntza Plan Orokorra | - HOEI: saioak zentro guztietan<br>- Lanketa berezia GBekin<br>- Kike Bizkaian<br>- 2. galdetegia bidali<br>- EBS kanpaina: 2.fasea martxan<br>- Erradiologoen txostenak euskaraz<br>- BIKAIN: beste bat ebaluatu | - Lanketa berezia GBekin<br>- Kike Gipuzkoan<br>- 2. galdetegiaren emaitzak<br>- Euskara Batzordea |
| **UZTAILA** | **ABUZTUA** | **IRAILA** | **URRIA** | **AZAROA** | **ABENDUA** |
| - Bulegoetako makinetako eta EM makinetako mezuak<br>- OSATEK hiztegia osatu<br>- Bileren egoera aztertu<br>- Kanpo-harremanen (ahoz eta idatziz) azterketa<br>- Zentroetako errotulazioa | | - EPP: Bizkaiko liberatuak<br>- Ofimatika: ordenagailuak euskaraz (kanpaina aztertu)<br>- Euskara Batzordea | - Lanketa berezia GBekin<br>- Ofimatika: ordenagailuak euskaraz (kanpaina martxan) | - Lanketa berezia GBekin<br>- Agirien sarrera- eta irteera-erregistroa<br>-BIKAIN: beste bat ebaluatu eta besteek gu ebaluatu | - Lanketa berezia GBekin<br>- 2021 KP balorazio kuantitatiboa/kualitatiboa<br>- A3: ekintza + tribiala<br>- Euskara Batzordea |

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatu.**

**1.1.- Errotulazioa.**

Helburua: ***harrera publikoa egiten den guneetako errotulazioan euskararen presentzia bermatu.***

**1.1.1.- Errotulazioa.**

**OSATEKen bulego, gela, eta zentroetan, herritar eta erabiltzaileen bistan dauden errotuluak eta noizean behingo oharrak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu zentro guztietako langile guztiei: posta elektronikoz, bileren bidez, prestakuntza-moduluen bidez, euskarri fisikoen (kartelak, egutegiak, pegatinak…) bidez, eta abar.
- Esparru honi dagozkion testuak OSATEK hiztegian jasoko dira. Hiztegi horren oinarria Harrera-gidan jasotzen da eta hiztegi hori elikatzen jarraituko dugu. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu eta gainbegiratu: irizpideekin bat ez datozen errotuluak eta oharrak zuzendu edo eta ordezkatu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Testuak**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Aplikazioa**: Zuzendaritza.
- **Gainbegiratze-lanak**: 1) LBak/Koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatu.**

**1.1.- Errotulazioa.**

Helburua: ***harrera publikoa egiten den guneetako errotulazioan euskararen presentzia bermatu.***

**1.1.2.- Herritarrei adierazi zein profesional den euskalduna, harekin euskaraz egin ahal izateko.**

***Ekintzak:***

- "OSATEKen ere, euskaraz bai sano!" kanpaina zabaltzen jarraitu, herritarrei adierazteko zein profesionalekin egin dezaketen euskaraz. Horretarako, hainbat euskarritan diseinatutako logoak eta leloak erabiliko dira: piramideak, kartelak, laneko identifikazio-txartelak…

***Arduradunak:***

- **Kanpaina diseinatu, zabaldu eta ebaluatu**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Euskarriak erabiltzen direla konprobatu**: LBak/Koordinatzaileak

***Epeak:***

- **Kanpaina zabaldu**: etengabe.
- **Ebaluazioa:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatzea.**

**1.2.- Paper-gaiak, argitalpenak, iragarki ofizialak eta ekitaldi publikoak.**

Helburua: ***aipaturiko esparruetan euskararen presentzia eta erabilera bermatu.***

**Paper-gaiak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako testuak OSATEK hiztegian jasoko dira. Hiztegi horren oinarria Harrera-gidan jasotzen da. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu. Aplikatu ostean, egindako lana gainbegiratu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Testuak**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Aplikazioa**: LBak/Koordinatzaileak.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatzea.**

**1.2.- Paper-gaiak, argitalpenak, iragarki ofizialak eta ekitaldi publikoak.**

Helburua: ***aipaturiko esparruetan euskararen presentzia eta erabilera bermatu.***

**Argitalpenak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Ikuskatze-lanak egin: irizpideekin bat ez datozen argitalpenak zuzendu edo eta ordezkatu egin behar dira.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Testuak**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Aplikazioa**: I+G+i ataleko arduraduna.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatzea.**

**1.2.- Paper-gaiak, argitalpenak, iragarki ofizialak eta ekitaldi publikoak.**

Helburua: ***aipaturiko esparruetan euskararen presentzia eta erabilera bermatu.***

**Iragarki ofizialak eta ekitaldi publikoak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Testuak**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Aplikazioa**: Zuzendaritza.
- **Gainbegiratzea eta betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatzea.**

**1.3.- Ingurune digitala.**

Helburua: ***OSATEKen webguneko edukiak eta posta elektronikoen mezuen sinadura euskaraz egon daitezen bermatu.***

**Webgunea.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Irizpideekin bat ez datozen edukiak zuzendu edo eta ordezkatu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Aplikazioa**: informazio-sistemen arduraduna.
- **Gainbegiratzea eta betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**1.- OSATEKen IRUDI KORPORATIBOA.**
Helburua: **OSATEKen gune guztietan, herritarrentzako euskarrietan, euskararen presentzia bermatzea.**

**1.3.- Ingurune digitala.**

Helburua: ***OSATEKen webguneko edukiak eta posta elektronikoen mezuen sinadura euskaraz egon daitezen bermatu.***

**Posta elektronikoen mezuen sinadura.**

***Ekintzak:***

- Posta elektronikoko mezuetako sinaduraren kasuan, hizkuntza-kontuei dagokienez, OSATEKek gaur arte izan duen jokabidea aztertu.
- Lanpostu bakoitzari dagozkion euskarazko eta gaztelaniazko izenak finkatu.
- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Irizpide horiek OSATEKeko langileen artean zabaldu jarraibide baten bidez, eta "OSATEKen ere, euskaraz bai sano!" kanpainaren bigarren fasearen barruan. Aipaturiko xedapen hori OSATEKen kudeaketa-sisteman integratuta utzi.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Irizpideak**: 1) Euskara Batzordea; 2) zuzendari-gerentea.
- **Izenak**: 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) Giza Baliabideetako arduraduna.
- **Aplikazioa**: 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) kalitate-teknikaria; 3) informazio-sistemen arduraduna.
- **Gainbegiratzea eta betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**2.- HARREMANAK HERRITARREKIN.**
Helburua: **herritarrentzako zerbitzuetan euskararen erabilera handitu, euskaraz artatua izatea nahi duen herritarrak euskaraz jaso dezan zerbitzua.**

**2.1.- Idatzizko komunikazioak herritarrekin.**

Helburua: ***herritarrari eman beharreko testu idatziak euskaraz ere egon daitezen bermatu, herritarrak berak nahi duen hizkuntza-bertsioa erabil dezan.***

**Idatzizko harremanak (Erresonantzia magnetikoa egin aurretiko segurtasun-galdetegia; Zain barneko kontrastea jarri ahal izateko baimena; Erreklamazio-orria; Gogobetetze-inkesta, Bertaratze-ziurtagiria, gutunak eta bestelakoak).**

***Ekintzak:***

- Aipaturiko idazkien egoera aztertu (hizkuntzak, zuzentasuna, formatua).
- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honi dagozkion testuak OSATEK hiztegian jasoko dira. Hiztegi horren oinarria Harrera-gidan jasotzen da. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- Estandarizatutako eredu berriak zabaldu eta erabiltzen direla gainbegiratu eta ebaluatu.

***Arduradunak:***

- **Dokumentuen azterketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Terminologia eta fraseologia**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Ereduak zabaldu, erabiltzen direla gainbegiratu eta erabilera neurtu**: 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) LBak/Koordinatzaileak; 3) kalitate-teknikaria.

***Epeak:***

- **Testuak eta aplikazioa**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**2.- HARREMANAK HERRITARREKIN.**
Helburua: **herritarrentzako zerbitzuetan euskararen erabilera handitu, euskaraz artatua izatea nahi duen herritarrak euskaraz jaso dezan zerbitzua.**

**2.2.- Ahozko komunikazioak herritarrekin.**

Helburua: ***euskaraz komunikatu eta euskaraz artatua izan nahi duela adierazi duen herritarrarekin OSATEKeko langileek izan beharreko ahozko harreman guztiak euskaraz izango direla bermatu.***

**2.2.1.- Telefono bidezko ahozko komunikazioak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu zentro guztietako langile guztiei: posta elektronikoz, bileren bidez, prestakuntza-moduluen bidez, euskarri fisikoen (kartelak, egutegiak, pegatinak…) bidez, eta abar.
- *Eskaintza aktiboa* kontzeptua zabaldu eta landu langileen artean.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu eta gainbegiratu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.
- Osakidetzak herritarren lehentasunezko hizkuntza zein den ezagutze aldera jasoa daukan datu edo erregistroa inplementatu edo eta erabili.
- OSATEKen Harrera-gida zabaldu eta erabiltzen dela gainbegiratu. Horretaz gain, zuzenketak eta ekarpenak ere jasoko dira.
- OSATEKeko langileen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzara zuzendutako saioak antolatu, bereziki ahozko oinarrizko komunikazioak lantzeko.
- OSATEKeko langileen zenbait jarrera (proaktibitatea, motibazioa, hizkuntza-enpatia…) lantzeko prestakuntza- eta trebakuntza-saioak antolatu.

***Arduradunak:***

- **Aplikazioa**: 1) LBak/Koordinatzaileak.
- **Terminologia eta fraseologia**: 1) koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Prestakuntza eta trebakuntza**: 1) Giza Baliabideetako arduraduna; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Ekintzak**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Lehen ardatza: ZERBITZU-HIZKUNTZA.**

**2.- HARREMANAK HERRITARREKIN.**
Helburua: **herritarrentzako zerbitzuetan euskararen erabilera handitu, euskaraz artatua izatea nahi duen herritarrak euskaraz jaso dezan zerbitzua.**

**2.2.- Ahozko komunikazioak herritarrekin.**

Helburua: ***euskaraz komunikatu eta euskaraz artatua izan nahi duela adierazi duen herritarrarekin OSATEKeko langileek izan beharreko ahozko harreman guztiak euskaraz izango direla bermatu.***

**2.2.2.- Ingurune fisiko asistentzialeko aurrez aurreko komunikazioak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu eta gainbegiratu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.
- Osakidetzak, herritarren lehentasunezko hizkuntza zein den ezagutze aldera jasoa daukan datu edo erregistroa inplementatu edo eta erabili.
- OSATEKen Harrera-gida zabaldu eta erabiltzen dela gainbegiratu. Horretaz gain, zuzenketak eta ekarpenak ere jasoko dira.
- "OSATEKen ere, euskaraz bai sano!" kanpaina zabaltzen jarraitu, herritarrei adierazteko zein profesionalekin egin dezaketen euskaraz. Horretarako, hainbat euskarritan diseinatutako logoak eta leloak erabiliko dira.
- OSATEKeko langileen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzara zuzendutako saioak antolatu, bereziki ahozko oinarrizko komunikazioak lantzeko.
- OSATEKeko langileen zenbait jarrera (proaktibitatea, motibazioa, hizkuntza-enpatia…) lantzeko prestakuntza- eta trebakuntza-saioak antolatu.

***Arduradunak:***

- **Aplikazioa**: 1) LBak/Koordinatzaileak.
- **Terminologia eta fraseologia**: 1) koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Prestakuntza eta trebakuntza**: 1) Giza Baliabideetako arduraduna; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Ekintzak**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.1.- Laneko hizkuntza-paisaia.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.1.1.- Bulegoetako errotulazioa (armairuak, apalak, karpetak, artxibadoreak eta abarrak), zentroetako errotulazio orokorra (protokoloak, segurtasuna, ingurumena, kalitatea, tresnen, ekipoen eta instalazioen jarraibideak eta abarrak), eta errotulu eta seinale aldakorrak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honi dagozkion testuak OSATEK hiztegian jasoko dira. Hiztegi horren oinarria Harrera-gidan jasotzen da. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak hornitzaileen artean zabaltzen jarraitu.
- Errotulazio-gai diren testuak finkatu: glosarioen lanketa; esaldi-bilduma. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- OSATEKeko langileen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzara zuzendutako saioak antolatu.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak aplikatu eta gainbegiratu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Aldez aurreko azterketa**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Testuak:** 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) LBak/koordinatzaileak; 3) hornitzaileak.
- **Aplikazioa**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 3) kalitate-teknikaria.
- **Gainbegiratzea, jarraipena eta betetze-maila**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Ekintzak**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.1.- Laneko hizkuntza-paisaia.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.1.2.- Bulegoetako makinetako eta EM makinetako interfazeak eta soinu bidezko mezuak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honi dagozkion testuak OSATEK hiztegian jasoko dira. Hiztegi horren oinarria Harrera-gidan jasotzen da. Finkatze-lan horrek oinarri jakinak izango ditu: koherentzia, batasuna eta zuzentasuna.
- Onartutako hizkuntza-irizpideak hornitzaileen artean zabaltzen jarraitu.
- Aukera dagoen guztietan, gaur egun ditugun makinen kasuetan eta alokatu edo erosiko diren makinen kasuan, onartutako hizkuntza-irizpideak ezarri.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Aldez aurreko azterketa**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Testuak:** 1) hornitzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 3) LBak/koordinatzaileak.
- **Aplikazioa**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 3) kalitate-teknikaria.
- **Alokatze eta erosketa berriak**: Ekonomia eta finantzako Zuzendaritza.
- **Gainbegiratzea, jarraipena eta betetze-maila**: 1) LBak/koordinatzaileak; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Ekintzak**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

### 3.2.- Laneko idatzizko harremanak.

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

### 3.2.1.- OSATEKen informazio- edo eta komunikazio-tresnak.

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu, jarraipena egin eta ebaluatu.

***Arduradunak:***

- **Gainbegiratzea, jarraipena eta betetze-maila**: 1) Teknologia eta Informazio-sistemen arduraduna; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

### 3.2.2.- OSATEKen agiri ofizialak.

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak finkatzeko jarraibidea, 2019ko maiatzaren 10ekoa, zabaltzen jarraitu, hainbat euskarriren bidez.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu, jarraipena egin eta ebaluatu.
- Itzulpen Plana garatzen, zabaltzen eta ebaluatzen jarraitu.

***Arduradunak:***

- **Itzulpen Plana**: 1) Giza Baliabideetako arduraduna; 2) Zuzendaritza-Gerentziaren idazkaria; 3) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Betetze-maila**: 1) teknologia eta informazio-sistemen arduraduna; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:*** **Ekintzak**: etengabe. **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.2.- Laneko idatzizko harremanak.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.2.3.- Agirien sarrera- eta irteera-erregistroa.**

***Ekintzak:***

- OSATEKen sartu/irten diren agirien sarrera- edo irteera-erregistroa dela eta, hizkuntza-kontuei dagokienez, gaur arte izan den jokabidea aztertu.

- Irteera- edo sarrera-erregistroa egiteko orduan, erregistro-gai den agirian zein hizkuntza erabili den zehazte aldera kontuan izan beharreko hizkuntza-irizpideak finkatu. Finkatu eta onartu ondoren, irizpide horiek OSATEKeko langileen artean zabalduko dira jarraibide baten bidez. Hartara, irizpideen ezagutza bera erraztu ahal izango da eta, aldi berean, irizpideon betetze-mailaren oinarriak finkatu. Aipaturiko jarraibide hori OSATEKen kudeaketa-sisteman integratuta geratuko da.

- Hilero erregistro-irteera edo -sarrera jaso duten agirietako bakoitzaren hizkuntza zein izan den azaltzen duen estatistika-txostena egin. Txosten horren bidez jakin ahal izango da zer-nola betetzen den hizkuntza ofizialen erabilera bidalitako edo jasotako agirietan.

- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Aldez aurreko azterketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Irizpideak**: 1) Euskara Batzordea; 2) zuzendari-gerentea.
- **Aplikazioa**: Zuzendaritza-Gerentziaren idazkaria.
- **Betetze-maila**: 1) Teknologia eta Informazio-sistemen arduraduna; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:***

- **Ekintzak**: etengabe.
- **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.2.- Laneko idatzizko harremanak.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.2.4.- OSATEKeko lan-bilerekin zerikusia duten agiriak.**

***Ekintzak:***

- OSATEKen egiten diren lan-bilerekin zerikusia duten agirien kasuan, OSATEKek, hizkuntza-kontuei dagokienez, gaur arte izan duen jokabidea aztertu. Hori egite aldera, honako hauek batuko dira: deialdiak, gai-zerrendak, PPT bidezko aurkezpenak, eta bileretara eramandako agiriak.
- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.

***Arduradunak:***

- **Aldez aurreko azterketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Irizpideak**: 1) Euskara Batzordea; 2) zuzendari-gerentea.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:*** **Ekintzak**: etengabe. **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.2.- Laneko idatzizko harremanak.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.2.5.- OSATEKeko barruko harremanetako idatzizko komunikazioak.**

***Ekintzak:***

- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu eta jarraipena egin.
- Neurriak hartu B2 euskara-maila egiaztatuta daukaten OSATEKeko langileen arteko idatzizko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko, modu progresiboan, eta beharrezkoa den konpromiso pertsonala tarteko. Horretarako, esandako hizkuntza-mailaren jabe diren langileen lanpostuak zehaztuko dira, langile horiek zenbait eginkizun euskaraz egin ditzaten eta, era progresiboan, euskara ohiko lan-hizkuntza izan dadin.
- Euskara gehiago erabiltzearen aldeko atxikimenduren bat (*Euskaraldia 2020*, *OSATEKen ere, euskaraz bai sano!* kanpaina, Zumarragako langileak) adierazi duten langileen zerrenda egin, beste langileei jakinarazi eta langile horiek euskaraz idatzi dezaten sustatu.
- OSATEKeko langileen hizkuntza-prestakuntza eta -trebakuntzara zuzendutako saioak antolatu.

***Arduradunak:***

- **Irizpideak**: 1) Euskara Batzordea; 2) zuzendari-gerentea.
- **Neurriak:** 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) Giza Baliabideetako arduraduna; 3) langileak, gutxienez, B2 maila egiaztatuta daukatenak.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:*** **Ekintzak**: etengabe. **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.2.- Laneko idatzizko harremanak.**

Helburua: ***bulego-materialetan, paper-gauzetan, makinetan, eta abarretan euskararen presentzia, ahozkoa eta idatzizkoa, bermatu.***

**3.2.6.- Langileek bete beharreko inprimaki eta dokumentuak.**

***Ekintzak:***

- Inprimaki eta dokumentu ofizialak jaso eta zerrendatu. Horien azterketa egin eta, jarraian, hizkuntza-egokitzapenari ekin.
- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen betetze-maila neurtu.
- Neurriak hartu, B2 hizkuntza-maila egiaztatu edo akreditatuta daukaten OSATEKeko langileak eta euskara gehiago erabiltzearen aldeko atxikimenduren bat (*Euskaraldia 2020*, *OSATEKen ere, euskaraz bai sano!* kanpaina, Zumarragako langileak) adierazi duten langileak eredu eta txantiloi horiek euskaraz betetzen has daitezen, modu progresiboan eta beharrezkoa den konpromiso pertsonala tarteko.

***Arduradunak:***

- **Batze-lanak**: Zuzendaritza-Gerentziaren idazkaria.
- **Aldez aurreko azterketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Neurriak:** 1) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 2) Giza Baliabideetako arduraduna; 3) langileak, gutxienez, B2 maila egiaztatuta daukatenak.
- **Betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:* Ekintzak**: etengabe. **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

**3.3.- Barruko ahozko harremanak (komunikazio horizontala eta bertikala).**

Helburua: ***ahozko komunikazioetan euskararen erabilera areagotu.***

**3.3.1.- OSATEK barruko lan-bileretako ahozko komunikazioa (aurrez aurre egindako bilerak zein bideokonferentzia bidez egindakoak).**

***Ekintzak:***

- Bilera garrantzitsuenen hizkuntza-egoeraren informazioa jaso.
- Esparru honi dagozkion hizkuntza-irizpideak, 2019ko maiatzaren 10eko jarraibidean finkatuta, zabaltzen jarraitu.
- Euskararen erabilera indartze aldera, bileretan parte hartzen duten langileek bere gaitasunen araberako konpromisoak hartu.
- Esparru honetako hizkuntza-irizpideen jarraipena egin.

***Arduradunak:***

- **Informazio-bilketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Aldez aurreko azterketa**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.
- **Irizpideak**: 1) Euskara Batzordea; 2) zuzendari-gerentea.
- **Konpromisoak:** 1) Zuzendaritza-Gerentzia; 2) hizkuntza-normalizazioko teknikaria; 3) Giza Baliabideetako arduraduna; 4) langileak, gutxienez, B2 maila egiaztatuta daukatenak.
- **Jarraipena eta betetze-maila**: hizkuntza-normalizazioko teknikaria.

***Epeak:*** **Ekintzak**: etengabe. **Betetze-maila neurtu:** urte amaieran.

**Bigarren ardatza: LAN-HIZKUNTZA.**

**3.- BARRUKO HARREMANAK, KOMUNIKAZIOA ETA LANABESAK.**
Helburua: **komunikazioan eta lanabesetan euskara ohikotasunez erabili.**

